



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO MARTXOAREN 26AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko martxoaren 26an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2009ko otsailaren 4an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2009ko otsailaren 18an izandako premiazko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin onartzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Urtarrilaren 30eko 2009/06 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** P.M.O.k aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ajangizko Kanpantxuko Aragana Goiti baserriko komuna konpontzeko lanetarako baimena.
- **Otsailaren 2ko 2009/07 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 210/2008 Foru Dekretuak arautzen dituen 2009ko ekitaldian tokiko ekintza planak ezartzeko (tokiko agenda 21) dirulaguntza eskatzea.



Ajangizko Udala

- **Otsailaren 6ko 2009/08 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.O.ri, Lurraska Ingurugiro zentruan saneamendua egokitzeko lanetarako baimena.
- **Otsailaren 12ko 2009/09 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartuz.
- **Otsailaren 12ko 2009/10 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.C.I.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza.
- **Otsailaren 12ko 2009/11 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Z.I.A.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza.
- **Otsailaren 20ko 2009/12 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.O.ri, Lurraska Ingurugiro zentruan aparkalekua egokitzeko lanetarako baimena.
- **Otsailaren 23ko 2009/13 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.O.ri, Kanpantxu 62 etxeko erretila konpontzeko baimena
- **Otsailaren 23ko 2009/14 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.A.B.ri, Mendieta 30ean kokatuta dagoen Bieskoa baserriko erretila konpontzeko baimena
- **Martxoaren 4ko 2009/15 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** IBERDROLAK 2009ko otsailaren 23an jarritako alegazioak guztiz ez onartzea eta MAIER kooperatibari hornitzen dioten instalazioak direla eta 2004 urteko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharriko tasen likidazioa bidaltzea
- **Martxoaren 5eko 2009/16 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.C.B.k egindako eskaera onartu eta 9343-BCH ibilgailuaren 2009 urtetik aurrerako udal ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena onartzea.
- **Martxoaren 5eko 2009/17 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** I.I.M.k aurkeztutako eskaera onartu eta BI-2123-BJ ibilgailuaren trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren hobaria onartzea
- **Martxoaren 6ko 2009/18 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.F.A.ri, Ajangizko Mendieta auzoko 10. etxeko erretila konpontzeko baimena.
- **Martxoaren 9ko 2009/19 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartuz.



Ajangizko Udala

- **Martxoaren 11ko 2009/20 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** IBERDROLA DISTRIBUCION ELECTRICA, S.A.U. enpresari, Ajangizen kokaturik dagoen STR Gernika, 30/13,2 KV banaketako transformazio azpiestazioa handitzeko lanetarako baimena

3.- 2009KO URTARRILAREN 1EAN UDAL BIZTANLEGO ERROLDAREN DATUEN BERRI EMATEA.-

2009ko urtarrilaren 1ean udal biztanlego erroldan dauden datuen arabera, Ajangizek 445 biztanle ditu erroldatuak. Horietatik 216 gizonezkoak dira eta 229 emakumeak.

4.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA, ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta, azaroaren 28ko 9/2008 Erret Dekretu Legeak araututakoa jakinda eta Kanpantxuko argindarra hobetzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

Lehenengo.- Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak publizidaderik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzeke espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 78.229,00 €ko gastua ere.

Bigarren.- Proiektua eta preskripzio teknikoaren orria onartzea.

Hirugarren.- Aipatu espedientearen urjentzia aitortzea, Sektore Publikoko kontratuen legeko 96 artikuluan jasotzen diren ondorioak aplikatuz.

Laugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

5.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (I. FASEA) LIKIDAZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. fasea) bukatuta, Carlos Ortiz de Zarate obraren Zuzendariak lanen likidazioari dagokion 5 zenbakidun azken ziurtagiria aurkeztu du Udaletxean, 14.589,63 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 14.589,63 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2009ko otsailaren 28ko A09-037 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko azken ziurtagiria den 5. Ziurtagiria onartzea, 14.589,63 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 14.589,63 euroko kopuru orokorra duen 2009ko otsailaren 28ko A09-037 faktura onartzea.



Ajangizko Udala

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

6.- MENTZETA AUZORA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (II. FASEA) LIKIDAZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanak (II. fasea) bukatuta, Igor Madariaga obraren Zuzendariak lanen likidazioari dagokion ziurtagiria aurkeztu du Udaletxean, 14.476,37 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 14.476,37 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2009ko otsailaren 28ko A09-036 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko azken ziurtagiria den 5. Ziurtagiria onartzea, 14.476,37 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 14.476,37 euroko kopuru orokorra duen 2009ko otsailaren 28ko A09-036 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

7.- BUSTURIALDEKO HERRI TXIKIETAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAREN (2009-2012) ONARPENA BEHAR BADA.-

Busturialdeko herri txikietarako emakume eta gizonen Berdintasunerako Planerako prozedua, 2007ko irailean jarri zen martxan, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoarekin. Diagnostikoari esker. Agerian utzi dira emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean eskualde mailan dauden premia, beharrian eta gabeziak.

Hori dela eta, Urremendi Landa Garapenerako elkarteak 2008ko urtarrilean Busturialdeko herri txikietan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Planaren diseinua abian jartzeko koordinazio lanak hasi zituen eskualdeko 18 udalekin.

Planak gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizon eta emakumeen berdintasunerako IV. Plana ditu erreferentzia gisa.

Busturialdeko herri txikietako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana garatzen duen dokumentua zazpi atal nagusitan egituratzen da:

1. Genero berdintasunaren marko kontzpetualaren sarrera eta eremu politikoan egiten duen ekarpena.
2. Zehazturiko neurrien euskarri den lege markoa
3. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erabiltzen diren estrategiak
4. Plana garatzen inplikaturiko pertsonen eginiko elkarrizketen ondorioak eta azterketa kuantitatiboaren ondorioak



Ajangizko Udala

5. Burutu beharreko ebaluazioaren eta jarraipenaren eredia azaltzeko atala
6. Helburuak, ekintzak, estrategiak eta esleituriko erantzunkizunak.
7. Dokumentuan erabilitako hizkera teknikoak ulertzeko terminoen glosategi bat eta dokumentuaren informazioa osatzeko beharrezko eranskinak.

Dokumentua aurkeztuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez honako erabakia hartzen du:

Lehenengo.- Busturialdeko herri txikietako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana (2009-2012) onartzea.

Bigarren.- Erabaki honen berri Urremendi Landa Garapenerako elkarteari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion neurriak hartu ditzen.

8.- 2009 URTEKO UDAL AURREKONTUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, aurrekontuak osatzen dituzten dokumentuak aurkeztuta, bertan jasotzen diren obra nagusiak azaltzeari ekiten dio.

- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen II. Fasea: fase honek Arganatik eta beheko zubirainoko tartea jasotzen du, 282.834,32 euroko aurrekontuarekin. Aurrekontu horretan bide gorria, argiteriarako bi hodi, zubi berria egitea, eskoilera, Araganarako sarrera eta guztiaren asfaltoa sartzten da.

- Hiri Antolaketarako Plan Orokorra: 94.000 euro aurreikusi dira 2009rako. Bizkaiko Foru Aldundiko hirigintza sailak %100eko laguntza ematen du lan hauetarako. Beraz sarrera eta gastuak berdinduta aurkezten dira puntu honetan.

- Frontoiko proiektua: 108.000 euro. Aurton frontoiko proiektua egiteko asmoa dauka Udalak, eta ahal den neurrian lanekin hastea. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza batzuk ateratzen ditu baina oso zaila da lortzea, aurkezten diren proiektu guztien artean bost baino ez baitituzte onartzen, eta horietan lehentasuna udalerrri desberdinen arteko proiektuek, eskualde mailakoek... dute.

- Argiteri publikoa: 2009 urterako Mentzetako argindar publikoa aurreikusi da 40.000 euroko aurrekontuarekin. Proiektu honekin lehenengo fasean egin ez ziren arketak egin, hodiak pasa, konexioak egin, farolak jarri...

- Biztanleguneen hobekuntza: Proiektu honetarako 18.000 euro aurreikusi dira, honako lan hauek burutzeko: Mendiako plazako kolunpioak konpondu, Kultur Etxe ondoko barandila jartzea, Kanpantxuko frontoia margotzea... Lan hauek burutzeko Bizkaiko Foru Aldundiari Tokiko Agenda 21en bidez eta Eusko Jaurlaritzari EREIN programaren bidez eskatu zaie dirulaguntza. Ordaindik ez da erantzunik jaso.

- Irisgarritasuna bermatzeko lanak: 2009 urtean burutzeko asmo diren lanak, hauek dira: Mendiako plazarako eskaileren hobekuntza, plazan dauden erregilak aldatzea, plazarako mendebaldean dagoen sarreran barandila jartzea, Kultur Etxerako sarrera egokitzea



Ajangizko Udala

eta Kanposantuko sarrera. Honek lan guztiek 30.480,67 euroko aurrekontua daukate, eta bai Bizkaiko Foru Aldundiari baita Eusko Jaurlaritzari ere dirulaguntza eskatu zaie.

- Sarrerei dagokionez, 2009 ekitaldiko aurrekontuko berezitasun nagusia, dirusarreren behera egitea da: Udalkutxatik diru gutxiago jasoko da, ez da aurreko urtetan jaso izan diren likidaziorik jasoko...

Aurton Iberdrolak Maierrera hornidura eramateko herri bideak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa atzeratuak jasotzea espero du. Orain arte 2005etik aurrerako tasak kobratzea lortu da eta 2004 urtekoak eztabaidan daude. Aurreko urtetako tasak Gernika-Lumoko Udalari ordaindu dizkietela kontutan hartuta, Gernika-Lumoko Udalarekin hitzegin dugu horren *kompensazioa* nolabait lortzeko.

Alkatetzak 2009 urteko Udal aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek azteruta:

- Ekitaldian kitzatzeko sarrera eta gastuen ustezko egoera
- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina
- Pertsonalari buruzko eranskina
- Udal Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra 1.083.222,36 €koa dela kontutan hartuta, honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta:

GASTOS		INGRESOS	
CAPITULO I	175.843,25	CAPITULO I	101.680,34
CAPITULO II	209.308,00	CAPITULO II	30.000,00
CAPITULO III	-----	CAPITULO III	62.870,00
CAPITULO IV	28.034,26	CAPITULO IV	641.418,58
CAPITULO V	-----	CAPITULO V	35.603,44
CAPITULO VI	670.036,85	CAPITULO VI	151.650,00
CAPITULO VII	-----	CAPITULO VII	-----
CAPITULO IX	-----	CAPITULO IX	60.000,00
TOTAL	1.083.222,36	TOTAL	1.083.222,36

Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2009 urterako udal aurrekontua, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio araua botaziora aurkezten dira, honako emaitza honekin:

- Aldeko botuak: sei (6)
- Kontrakoak: ez daude (0)
- Abstentzioak: ez daude (0)



Ajangizko Udala

Jasotako emaitza kontutan hartuta, Alkateak 2009ko aurrekontuak behin behinez onartutzat jotzen ditu, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio arauarekin batera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean azaltzen da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketenez interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udaltzatzen aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onarturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

9.- URAREN ZIKLOARI BURUZKO MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkateak Udaletxe honetako zinegotzi den Angel Luis Uribarri jaunak aurkeztutako uraren zikloari buruzko ondoren transkribatzen den mozioa aurkezten du:

Gure herrian zein eskualdean uraren ziklo osoaz arduratuta gaude. Gogoratu behar da udalarena dela ura kudeatzeko eskumena eta betebeharra; Busturialdeko Ur Partzuergoak, aldiz, kudeaketa horren esleipena besterik ez du.

Guk, Busturialdeko Ur Partzuergoaren etorkizunean sinesten dugu, ura tokian tokiko eskualdeko antolaketaren bidez kudeatzea jasangarriena eta egokiena dela uste baitugu.

Guk, Busturialdeko Ur Partzuergoari baietz esaten diogu, bainan hurrengo printzipioei jarraituz:

1.- Uraren ziklo osoaren kudeaketa printzipio jasangarrietan eta gardentasunean oinarritu behar da.

2.- Ur-baliabideen zein orokorrean ur-bilketa putzuen kontrola publikoa izan behar du.

3.- Ur baliabideen egoera zein ur-bilketa putzuen egoera ona bermatzeko beharrezkoak diren azterketa, ikerketa zein babes neurriak abiatu behar dira.

4.- Uraren kalitatearen inguruko azterketa zorrotzak etengabe behar dira eta datu horiek ezagutzera eman behar dira.

5.- Ur kontsumoa arrazoizkoa izateko neurriak jarri behar dira eta ur-kontsumoaren xahuketak kontrolatu behar dira.

6.- Ur galeren kopuruen arrazoiak azterketak eta horiek konpontzeko neurriak jarri behar dira.

7.- Tarifa sistema justuago eta progresiboago bat aplikatu behar da, non egoilar, erabilzaile zien kontsumo mota ezberdinak eta zerbitzuaren kostu erreala kontutan hartuko diren.

8.- Partzuergoaren osaketa orekatuago eta zabalagoa izan behar da, eskualdeko errealitate politiko eta sozialaren ispilu izan dadin.



Ajangizko Udala

9.- Edozein herritarri uraren inguruko edozein informazio eskuratzeko eskubidea benetan bermatu beharko zaio.

10.- Partzuergoak eguneroko kudeaketa gardena izatea bermatu behar du, aurrekontu orekatuak zein informazio ekonomiko guztia emanaz.

Hori horrela, hurrengo MOZIOA aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaidatu eta onartu dezan.

1.- Udal honek Busturialdeko Ur Partzuergoari Ajangizko ur baliabideen egoeraren inguruko informazioa ematea eskatzen dio, bereiziki atal hauetan:

- Herriko zein ur bilketa putzuetatik hartzen du ura BUPek
- Zenbat litro segundoko hartzen den herriko putzu horietatik
- Ur bilketa putzu bakoitzeko uren kalitatearen inguruko informazioa.

2.- Udal honek Busturialdeko Ur Partzuergoari Ajangizko herrian dauden ur galeren kopuruak non eta zergatik ematen diren eskatzen dio.

3.- Udal honek Busturialdeko Ur Partzuergoari tarifa sistema berria ezar dezala eskatzen dio, progresiboa, justuagoa eta orekatuagoa

- kuota aldakorretatik ehunekoetan gehiago biltzea kuota finkotik baino
- erabiltzaile mota ezberdinak kontutan hartzea (nekazaritza, industria, lorategiak...)
- bigarren etxebizitzarako kontsumoetarako kuotak handitzea

4.- Ur-partzuergoari estatu berri batzuk egitea proposatzen zaio, osaketa zein funtzionamendu demokratikoagoa izan dezan. Herri guztiek ordezkaritza orekatuagoa edukitzeko eta Busturialdean dagoen aniztasun zein errealitate politikoa ezbedina errespetatzeko.

5.- Udal honek, kudeaketaren gardentasunaren mesedetan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari Busturialdeko Ur Partzuergoen inguruko fiskalizazio txostena egin dezala eskatzen dio.

Aurkeztutako mozioari erantzunez, PNV-EAJ taldeko ordezkari den Roman Etxeandia Zabala jaunak bere taldeak aurkezten duen mozioaren irakurketa egiten du:

Aurkezten dan mozioataz argi ta garbi esan behar dugu: ez du udal eta Partzuergoko eskumeneko kudeaketa edo gestio ona mantentzeko helbururik adierazten, baizik eta helburu eta kutsu politiko hutsa duen mozioa da. Batez ere populismoan eta demagogian oinarritzen dan mozio bat da.

Egia esan ANV taldea izandakoak aurkezten dituen mozio honek Gernikako akordio politikoan dau bere sormena; hau da Gernikan gobernu taldeak egindako promesa bat betetzeko asmoa bakarrik du eta ez dauka Partzuergoak ematen dauzan zerbitzuak hobetzeko asmorik ezta herritarren ongizatea hobetzeko asmorik.

Behin da berriz be uraren aitzakiaz demagogia eta populismoa egiten da, eta hauxe esan genezake:



Ajangizko Udala

.- ANV izandako taldeak eta bera agintzen dagoen Udalek Partzuergotik eskatu daben informazio guztia jaso dabela, horren jakinean bagaude eta argi eta garbi esan behar dogu, beraz ez da egia transparentzi falta dagoenik. Gainera ANV izandakoak Partzuergoan duen ordezkariak (Gernikako Udaleko zinegotziak) behin da barriz jaso dau Partzuergotik eskatu dauan informazioa. Horrez gehiago eskatu ez dauan informazioa baina interesgarria izan daitekena (Azpiegitureta, funtzionamenduaz, etab.) ere emon jako Partzuergotik eta horrela adierazten dabe beragaz bat partzuergoan dauden beste kideak ere.

Zentzu honetan galdera bat egingo genduke: Noiz eskatu dio udal honetako alkatetza honek informazioa partzuergoari? Eta horrela bada eskaeraren kopia eskatzen jako Alkatetzari.

Partzuergoari informazioa eskatzeko ez dago zertasn moziarik aurkeztu behar, nahikoa da Alkateak eskaria egitea (barrero ere uraren kontura populismoa egin gurean zabiltzate).

.- Baina egunean jakinean gaude, Busturialdeko Partzuergoa dala urkudeaketa integrala eta sostenagarria egiten dauan Partzuergoetariko bat. Eta hori egungo partzuergoak eta bere partaidetzan dauden udalak azken urteetan lortutako egintza bat da. Baina gainera kudeaketa erabat publikoa da. Partzuergo bezala, entitate publiko bat da eta beraz partzuergoaren egitura, ordezkaritza, kudeaketa eta kontrola erabat publikoak dira ehuneko ehun. Horrez gainera edozein udal bezala, kontratazioetarako, ekintza eta kontuen kontrolerako, zuripenerako eta hainbat eta hainbat ekintzetarako publikoak diran kontrolak dauka eta era egokian kudeatuak izan dira.

.- Partzuergoaren antokaketa udal guztiek onartutakoa da 1992 urtean eta gerorantz onartu ziren estatutoetan ere.

Estatuto honeek ualbatza guztiek onartu zituzten. Orduan, lehen baliozkoak ziren akordioak ez al dira orain baliozkoak? Beraz berriro ere ez zaudete herritarren onura lortu nahiean baizik eta plitiko hutsa egin furean zaudete, hau da, partzuergoak egun daukan Udal ordezkarien errepaetoa ez dala baliozkoa diozue mozioan, orduan zuen helburu politikoak lortzeko arau berezi eta neurrikoak nahi dituzue!

Jakin indarrean dauden estatutoak Udalbatza askok aho batez onartutak izan zirala horren artean ezker abertzaleak ere onetsi zituztelarik.

Urarekin eta bere kudeaketarekin jokurik eta demagogiarik ez egitea eskatzen jatzue.

.- Partzuergoak dituen medioekin ekiten dautso kudeaketari eta beraz daukazan sarreren bidez egiten dau bai mantenimendua eta baita inbertsioak ere eskualde guztian. Dauzkaguzan galerak zeintzuk diren eta konpontzeko eskatzen da mozioan. Baina jakin al badakizue ze egoeratan zeuden sare horrek partzuergoak jaso zituenean? Ba al dauka Udalak hdi eta azpiegitura horren egoera zein zan partzuergoari emoterakoan? Alkatetzak mozio hau aurkezterakoan horren barri duela espero dot zeren ez dakit bestela zer eskatzera datorren.

Baina horrez gain, tarifa sistema barria ezartzeko eskariaz dator mozioa. Uren partzuergoak publikoki adierazi du tarifa sistema aztertzeko prest agertzen dala beti ere sarrera bardinak bermatuko dituen sistema jartzeko asmoz. Mozioak ez du inolako proposamen zehatzik egiten, bai ordea diru sarrera gutxiago ekarriko duen sistema ezartzearen aldekoa da (Gernikako proposamen elektoralen morroi da mozio hau).

Diru sarrera gutxiago izanda:



Ajangizko Udala

- Zelan konponduko dira eskatzen dituzuen ur galerak ekiditzeko hodiak eta azpiegiturak?

- Zelan egingo dira udal honek eskatzen dituen ur eta saneamenduinbertsio barriak?

- Zelan erosiko dira saneamendu sistema integrala ezartzeko azpiegituren lurrak? (ze lur horrek partzuergoak erosi behar ditu eta horretarako ez dago subentzio zien dirulaguntzarik)

- Zelan bermatuko da partzuergoak kontrol publiko eta sostenagarri bat egitea? (zuek mozioan esaten dozuen eran).

- Zelan bermatuko dira egun partzuergoak dituen lanpostuak? (Edo lanpostuak murrizteko apostua egiten dozue tarifan ondorioz diru sarrera gutxitzeaz bat?)

Mozioak aurkezten dituen tarifarekiko aldaketekin egungo sarrerak ez dira bermatzen, egun indarrean dagoen tarifa sistemak bigarren etxebizitzadunei gainkarga ezartzen diete (kontsumo hurriaz tarifa finkoa ordaindu behar dutelako), beraiengatik diru gehiago hartzen da beraz. Ezinezkoa da mozioak eskatzen duen eran honeri kontsumo kuotak handitzea bardintasun printzipioaren kontra agertzen da eta legez kontrako neurria litzateke.

Argi eta garbi esan behar dogu: Gernikako jauteskunde promesa baten ondorioz uraren prezioa murriztu beharra dagoela eta sistema guztia apurtzeko arriskuan gaude eta ANV izandako taldea horren partaide agertzen da. Proposamen hau ez dago sistema hobetetzeko eta herritarren zerbitzuaren alde egiteko, baizik eta barriro be demagogia eta populismoa egiten da.

EAJ-PNV taldeak uren kudaketa erantzule bat egin behar dala uste da, promesa usteletan jausi gabe. Horretarako Udalarari eskatzen zaio:

- Aurkeztutako mozioa eskualdeko ur eta saneamendu sistema solidario, jasangarri eta erantzule baten aurka agertzen dala eta interes politikoak bakarrik dituela helburu, beraz ez onartzeko eskatzen da.
- Gernikako Udalarari partzuergotik urtetako erabakiaz sistema solidario eta jasangarri hau kolokan jartzen duela eta beraz bere erabakia berrazterteko eskaria egitea.
- Partzurgoari egungo uren zerbitzua mantendu eta hobetuko dituen ahaleginak, gestioak eta erabakiak hartzeko eskaria egitea, jakinik uren gainean legedia bete eta herritarren onerako izango dan sistema bat jarri behar dala.

Aurkeztutako lehen mozioa botaziora eramanda, honako emaitza jaso du:

- Aldeko botuak: bost (5), Koldo Carbonell, Angel Luis Uribarri, Jabier Berrojalbiz, Maria Angeles Goikolea eta Beñat Erezuma zinegotzienak
- Kontrakoak: bat (1) EAJ-PNV taldeko Roman Etxeandia zinegotziarena
- Abstentzioak: ez daude.

Bigarren mozioa botaziora jarrita honako emaitza jaso du:

- Aldeko botuak: bat (1), EAJ-PNV taldeko Roman Etxeandia zinegotziarena



Ajangizko Udala

- Kontrako botuak: bost (5), Koldo Carbonell, Angel Luis Uribarri, Jabier Berrojalbiz, Maria Angeles Goikolea eta Beñat Erezuma zinegotzienak
- Abstentzioak: ez daude.

Jasotako emaitzak kontutan hartuta, Alkatetzat aurkeztutako lehenengo mozioa onartutzat aldarrikatzen du.

10.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen II. Faseari dagokionez, Alkate Udalburuak proiektua egin duen ingeniariarekin batera Ura, ur agentziara egindako bisitaren berri ematen du. Hasiara baten, proiektuan zubi berri bat eraikitzeak aukera jaso zen, zubiak bidean egiten duen itxitura konpondu asmoz. Proposamen hori ez zuten onartu Ur agentziakoek, eta horri konponbidea eman nahian beste aukera bat aurkeztu zen: zubi dagoen tokian utzi eta zubi ondorengo lurretan bideak egiten duen kurba zabaltzea. Horretarako aurretik lur horien jabeekin hitzegun zuen Alkateak, Emilio Obieta eta Jesus Pertikarekin eta euren konformidadea lortu zen. Ur agentziakoak azken proposamen honi oneritzia eman zioten eta zubi pixka bat bajatzea ere onartu zuten.

Proiektu hau aurrera eramateko Bizkaiko Foru Aldundiko udal harremanetarako sailari dirulaguntza eskaera egin zaio, eta oraindik atera gabe dagoen landabideak egokitzeko dirulaguntza deialdira ere proiektu bera bidaltzeko asmoa dago.

- Lehen aipatutako Genrika-Lumoko Udalarekin lortu nahi den konpensazioari buruz, Alkateak Gernikako Alkatearekin, Udaleko teknikari batekin, proiektuaren ingeniariarekin eta Iberdrolako ordezkari batekin izandako elkarrizketa komentatzen du. Batzarra Gernikak Santa Luziako etxeetara argindarra eramateko egin behar duen proiektuari buruz hitzegiteko planteatu zen, proiektu horren parte bat Ajangiztik igarotzen dela kontutan hartuta.

Argi linea berri bi jarriko lirateke Ajangizko posteetan, eta horren ordezkari gaur egun dagoen linea bat kendutako litzateke.

Ajangizko Udalak Gernikan zehar lurperatuta doan linea Ajangizen ere lurperatzeko aukerari buruz galdetzean, egoera zail ikusi zuten, lur hirigarria ez delako. Legeak lur hirigarrian lineak lurperatzeko betebeharra arautzen du, baina ez lur ez hirigarrian. Iberdrolakoaren esanetan, lurperatzeko Iberdrolak ez luke arazorik (obra Gernikako Udalak egin beharko luke) baina horrek lur hori erabiltezin bihurtuko luke jabeentzat.

Ajangizek printzipioz laguntzeko asmoa duela agertu zen batzar horretan, baina horren truke Gernikak ere bere parte jarri behar zuela. Zentzu horretan Ajangizen buru beharreko argindar publikoaren zenabait instalazio aipatu zitzaizkion Alkateari, eta printzipioz baiezkoa aipatu zuten.

Horrez gain, Iberdrolatik jasotako diruan konpensazio aukera ere aipatu zitzaien, eta puntu honetan ere aldeko postura agertu zuten.

Dena den Gernika-Lumoko Alkateak erantzun bat bidaliko zuela aipatu zuten, eta erantzun hori jasotzean aztertuko da egoera. Bitartean Gernikako Udalak behar duen Ajangizko baimena bere baitan dago.

- Alkate jaunak rotunda jadanik martxan dagoela aipatzen du. Bizkailurretik aurkeztutako lehenengo proiektuak, egindako urbanizazioa apurtzea suposatzen zuen, horrek



Ajangizko Udala

zekarren kostu igoerarekin. Horren ordeztu bigarren proposamen bat aurkeztu zuten, Serreriari lur gehiago kenduz. Proposamen honi Serreriakoek ezetza eman zioten eta azkenik hirugarren bat planteatu zen, rotonda gorago jarritz Serreriari lur gehiago hartu beharrik gabe. Azken proposamen hau da azkenik onartu dena.

Angel Luis Uribarri jaunak komentatzen duenez, rotondako lanak egin ahal izateko arazo batzuk egon dira Serreriakoek ez baitzuten baimenik ematen beraien lurretatik lanok burutzeko. Egoera konpontzeko batzar bat ospatu zen atzo; batzarrean baimena emateko euren lurren kalifikazioa eskatzen zuten. Azkenik lortu zen adostasuna, Udalak martxan duen Plan Orokorra burutzeko prozeduran euren proposamena aztertuko zela onartuz.

- Eusko Jaurlaritzak, Oka ibaiaren ertza garbitzeko aurkeztu zen proiekturako dirulaguntza onartu duela aipatzen du Alkateak. Proiektu hau Urdaibai Fundazioaren laguntzaz martxan jarri da eta exekuzioan martxoaren 12n hitzaldi bat antolatu zen Kultur Etxean eta martxoaren 14an zuhaitz eguna antolatu zen, 300 zuhaitz landatuz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko hamarrak hogeit gutxi direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA